



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko apirilaren 16a

39. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeak berritzeko eta berritik eraikitzeko obra guztietan kontuan har daitezzen eskualdearen beharrianak. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Osasun eta Gizarte Politikako Ministerioa premiatzen da gor-itsuen kopurua ezartzeko azterlana buka dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak babesa ematen dio terroristen ingurunea erakundeetan egotea ekidin aldera Espainiako Gobernuak hasitako lege aldaketari. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da legeak ezartzen duen epean modu zuzen eta eraginkorrean ordain dezan Oinarrizko Errenta. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Urrobi industrialdea handitu eta Nasuinsaren bidez kudea dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da Pirinioen 2007-2009 Planean hartutako konpromisoak bete ditzan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Lan eta Immigrazio Ministerioa premiatzen da gor-itsuen kopurua ezartzeko azterlan bat egin dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna eta babesa adierazten dio Baltasar Garzón epaileari, frankismoaren krimenak judizialki ikertzeagatik jasaten ari den jazarpen-kanpaina dela eta. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (11. or.).
- Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aitortzen du Bigarren Errepublika aldarrikatzeak egiazko gizarte demokratiko bat lortzeko itxaropen handia ekarri zuela, balio etiko, politiko eta sozialen berritzea ekarri zuenez. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Lizarrako Karlismoaren Museoa euskara erabili ez izanari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egin (13. or.).
- Galdera, Zortziko izeneko biribilgunearen proiektuari buruzkoa, Txentxo Jiménez Hervas jaunak egin (14. or.).
- Galdera, Irurtzango saihebideari buruzkoa, Txentxo Jiménez Hervas jaunak egin (14. or.).
- Galdera, Gastu Publikoa Kontrolatzeko Plana inplementatzeak Nafarroako Gobernuko departamentuetan izanen dituen ondorioei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (15. or.).
- Galdera, jakiteko zer kontusail baliatu den ikerketa, garapen eta berrikuntza proiektuetarako dirulaguntzak emateko, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egin (15. or.).
- Galdera, Hitzarmena Iruñerriko Mankomunitatearekin-Ibai Parkea izeneko kontusaileko diru guztia eman ez izanari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egin (16. or.).
- Galdera, jakiteko zer kontusail baliatu den Sarrigurengo ikastetxe publikoan kirol pista bat eraikitzeke, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egin (16. or.).
- Galdera, turismoaren garapenerako plan estrategikoei buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egin (17. or.).
- Galdera, Nafarroako 2009ko Gazteria Sariei buruzkoa. Galdera erretiratzea (18. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeak berritzeko eta berritik eraikitzeko obra guztietan kontuan har daitezen eskualdearen beharrianak.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ikastetxeak berritzeko eta berritik eraikitzeko obra guztietan kontuan har daitezen eskualdearen beharrianak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko apirilaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramirez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentariak, talde horretako eledun gisa, eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikuluan eta hurrengoan babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Nafarroako Irurita herrian ikastetxe berri bat eraikitzeko proiektua dago. Herri horretako gura-

soen elkarteak publikoki adierazi du eraikin berri-rako ez dela aurreikusi jantoki-zereginak beteko dituen gunerik. Orain arte, gaur egungo ikastetxean zerbitzu hori existitzen da, eta ezinbesteko deritzote haurrei jantokira joateko aukera emateari. Hezkuntza Departamentuak ez du zerbitzu hori aurreikusten, nahiz eta familiek behin eta berriro horretarako eskaera egin duten, eta maila teoriko batean hainbeste aipatu ohi den lana eta familia bateragarri egin beharra, eta legebiltzar honetan ikastetxe berriei buruzko lantaldeak ondorioztatu arren hezkuntzaren arloko eskualde eta zirkuntantzien arabera beharrezkoak diren dotazioak eduki behar direla.

Hori dela eta, gure parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeak berritzeko eta berritik eraikitzeko obra guztietan kontuan har daitezen eskualdearen beharrianak eta hezkuntza-erkidegoaren iradokizunak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Irurita ikastetxe publikoa eraikitzeko proiektuaren barrenean sar dadin erabilera anitzeko aretoa, zeinak, besteak beste, eskola-jantokiaren eginkizunak beteko bailituzke.

Iruñean, 2010eko martxoaren 24an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramirez Erro

Mozioa. Horren bidez, Osasun eta Gizarte Politikako Ministerioa premiatzen da gor-itsuen kopurua ezartzeko azterlana buka dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Osasun eta Gizarte Politikako Ministerioa premiatzen baita gor-itsuen kopurua ezartzeko azterlana buka dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko apirilaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Samuel Caro Sádabak, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko eledunaren ondokoak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko, gor-itsuen kolektiboari dagozkiion zenbait gairi buruzkoa.

Zioen azalpena

Urriaren 23ko 27/2007 Legeak, zeinaren bitartez aitortzen baitira Espainiako zeinu-hizkuntzak eta arautzen baitira gorren, entzumen-ezgaitasunak dituztenen eta gor-itsuen ahozko komunikazioari laguntzeko bitartekoak, seigarren xedapen gehigarrian ezartzen du ezen Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak (gaur egun, Osasun eta Politika Sozialeko Ministerioari atxikitako eskumenak dira) azterlan bat eginen duela, zeinean ezarriko baita gor-itsuen kopurua, haien bizi-baldintzak eta kokaleku geografikoa, eratu beharko diren erreferentzia-zentroak zehazte aldera, bai eta kolektibo

honen beharrizan bereziei egokituena diren baliabideak ezartze aldera ere.

Orain arte, ministerioak ez du legezko betebeharra bururaino eramane. Gor-itsutasuna jasaten duen pertsonen, komunikatu ahal izateko, bitartekari espezializatu batzuk behar dituzte, eta horretarako, nahitaezkoa da lanbide horrek ofizialtasuna izatea. Kualifikazioen Institutu Nazionalari galdera-sorta bat aurkeztu zaio, lanbide-kualifikazioen kanpotiko egiaztatzea egin ahal izateko.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko erabaki-proposamena aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko:

1. Nafarroako Parlamentuak Osasun eta Politika Sozialeko Ministerioa premiatzen du azterlan bat burutu dezan, zeinean zehaztuko baita Espainian gor-itsutasuna duten pertsonen kopurua, bai eta haien baldintzak eta kokaleku geografikoa ere, kasua bada eratu beharko diren erreferentzia-zentroak zehazte aldera, bai eta kolektibo horren beharrizan bereziei egokituagoak diren baliabideak ipintze aldera ere.

2. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Ministerioa premiatzen du ofizialki arautu dezan gor-itsuen bitartekarien lanbide-kualifikazioa, Kualifikazioen Institutu Nazionalari eskaturikoaren ildotik.

3. Nafarroako Parlamentuak Osasun eta Politika Sozialeko Ministerioa premiatzen du "laguntzaile pertsonal edo bitartekari" baten laguntzarako baremoak berrikus ditzan, Mendekotasun Legearen mugapean.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren bitarteko guztiak gara eta inplementa ditzan, berdintasun-oinarri batetik estaldura emateko gor-itsuen kolektiboari, berriki onetsitako Irisgarritasun Unibertsalari eta Orentzako Diseinuari buruzko Foru Legea eta aplikatzekoak diren xedapen eta arau guztiak aplikatuz eta garatuz.

Iruñean, 2010eko martxoaren 26an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak babesa ematen dio terroristen ingurunea erakundeetan egotea ekidin aldera Espainiako Gobernuak hasitako lege aldaketari.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babesa ematen baitio terroristen ingurunea erakundeetan egotea ekidin aldera Espainiako Gobernuak hasitako lege aldaketari.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko apirilaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko eledun Roberto Jiménez Allik, talde hori ordezkatzuz eta Legebiltzarreko Erregelamendu indardunaren 192, 193 eta 194. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako presazko mozioa aurkeztu du, zeinaren bidez babesa ematen baitzaio Espainiako Gobernuak terroristen ingurunea erakundeetan egotea ekidite aldera hasitako lege-aldaketari; halaber, mozioaren bidez erakunde demokratikoetako ordezkari publiko guztiak premiatzen dira arreta bereziz zain dezaten onetsitako lege-aldaketa betetzea, eta Nafarroako Gobernuak premiatzen da behin betiko bultzada eman diezaion Foru Komunitateko Elkarbizitza Demokratikoaren aldeko Akordioari, kontuan izanik prestatzen ari diren testuei buruz jadanik adostasun zabala dagoela talde politiko ezberdinen artean.

Zioen azalpena

Espainiako Gobernuak, elkarbizitza demokratikoaren alde egiten duen apustu argiaren esparruan, lege-aldaketa bati bultzada eman dio berriki, terrorismoa gaitzesten ez dutenak erakundeetan egotea ezinezkoa izan dadin.

Hauteskunde Araubide Orokorri buruzko Lege Organikoaren aldaketa bat da, bidea emanen duena "gerora gertatutako bateraezintasuna" aplikatzeko, hauteskundeen ondoren legez kanpo utziak izan diren taldeetakoak diren zinegotzi hautatuei.

Alegia, modua emanen du legez kanpo utzitako alderdi bateko zinegotzi bati bere akta kentzeko, baldin eta ez badie uko egiten ilegalizazioa erakarri duten printzipioei. Uko egite horrek espresua, publikoa, nabarmena eta fede-emailea izan beharko du, eta erakutsi beharko du uko-egileak loturarik ez duela inolako indarkeria-motarekin, ez eta indarkeriaren aldekoak diren alderdiekin ere.

Gainera, aldaketa honen bitartez posible litza-teke debekatzea legez kanpo utzitako alderdi baten lanari jarraipena ematen ahalegintzen diren hautagaitzak, asmo hori bera aurkitzen zaien federazio edo plataformak, eta ez soilik taldeak. Halaber, eta hauteskunde-prozesua abian dagoenean ere, posible izanen da ETArekiko lotura-frogak aurkitzen zaizkion erakunde bat ilegalizatzea.

Espainiako Gobernuak lege-aldaketa hori datoren maiatzean Gorte Nagusietan aurrera atera nahi du. Nafarroako Parlamentuak, Foru Komunitatean duen eragin berezia dela-eta, ekimen horren alde dagoela espresuki azaldu beharko luke. Ekimen bat, hain zuzen, zeinarekin ETA amaiarazteko ahalegin etengabea aurrerapauso demokratiko bat ematen baita.

Espainiako Gobernuak, berriro ere, aurrea hartzen die terroristen ingurune mugimenduei, eta, Zuzenbide Estatuak eskueran ipintzen dizkion bitarteko guztiak erabiliz, ekintzailtasunez jokatu du, indarkeria gaitzesten ez dutenak erakundeetan egotea saihesteko.

Lege-aldaketa honen helburua da ez dadila trinkimailurik erabil Alderdi Legeari itzurtzeko eta, era horretan, herritar guztiak beren erakundeetarako nahi duten normaltasun demokratikoari iseka egiteko.

Horregatik, eta lege-aldaketa honekin lortu nahi den azken emaitzarekin ados egonda, PSN-PSOEek uste du Nafarroako Parlamentuak Espainiako gobernuaren ekimen hau onetsi eta ekimenari babes espresua eman behar diola.

Adierazpen horren bitartez, nafarren ordezkariok ahotsa ematen diegu herritarrei, abiarazten ari den politika antiterrorista eraginkorrek bat egin dezaten. ETAren aurkako borroka ez dago gobernuen eskuetan soilik; herritarrek ere bultzada eman ahal diote, ordezkari publikoen bitartez emandako babesa dela medio.

Nafarroak laztasun bereziz eta urte gehiegiz pairatu ditu ETAren terrorismoaren ondorioak. Nafarroako gizarteak behin eta berriro adierazi izan du horrekin nazkatuta dagoela, eta behin baino gehiago, halaber, exijitu du banda terrorista desagertzea.

Aldarrikapen horren oihartzuna jasotzeaz gain, Nafarroako erakundeek normalizazio demokratikorako ekarpena egin behar dute, terrorismoaren amaieraranzko atzerabueltarik gabeko bide horretan erabakitzen diren ekintza guztiei babesa erabakimenez emanik.

Horregatik, eta gaiaren garrantziarengatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamen-

tu-taldeak presako mozio hau aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak babesa ematen dio terroristen ingurunea erakundeetan egotea ekidite aldera Espainiako Gobernuak hasitako lege-aldaketari.

2. Nafarroako Parlamentuak erakunde demokratikoetako ordezkari publiko guztiak premiatzen ditu arreta bereziz zaintzera onetsitako lege-aldaketa betetzea.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behin betiko bultzada eman diezaion Foru Komunitateko Elkarbizitza Demokratikoaren aldeko Akordioari, kontuan izanik prestaketan dauden testuei buruz jadanik adostasun zabala dagoela talde politiko ezberdinen artean.

Iruñean, 2010eko martxoaren 29an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da legeak ezartzen duen epean modu zuzen eta eraginkorrean ordain dezan Oinarrizko Errenta.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita legeak ezartzen duen epean modu zuzen eta eraginkorrean ordain dezan Oinarrizko Errenta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko apirilaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduak 195, 196 eta 197. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta, kasua bada, onesteko, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita legeak ezartzen duen epean modu zuzen eta eraginkorrean ordain ditzan "Oinarrizko Errenta" izena daukaten aldizkako laguntza ekonomikoak.

Zioen azalpena

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak behin eta berriro adierazi izan ditu bere kezka eta interesa oro har Gizarte Zerbitzuen Zorroa Foru Komunitatean modurik onenean eta arduratsuenean aplikatzeari buruz, eta, zorro horretako prestazio bermatuen barrenean, "oina-

rrizko errenta” izeneko laguntza ekonomikoari buruz.

Oinarrizko errenta, aipaturiko Gizarte Zerbitzuen Zorroan prestazio bermatu gisa sartua, familia unitatearen diru-sarreraren osagarria eta subsidarioa den aldizkako laguntza ekonomiko bat da, diru-baliabiderik ez duten etxeetako oinarrizko beharrak asetzeko eta bazterketa-egoeran dauden pertsonak gizarteratzea sustatzeko.

Egia da krisi ekonomikoaren, enplegu-galderen eta langabezia-prestazioak agortzearen ondorio izaten ari dela prestazio hori eskatzen duten familien kopuruak gora egitea, prestazio hori eskubide subjektibo bat denez, Eskubide Sozialen Gutun baterako Foru Legeak eta aipaturiko Gizarte Zerbitzuen Zorroak bermatzen dutena.

Gizarte Zerbitzuen Gutunak ezartzen du, prestazioa emateko epe gisa, berrogeita bost egun; eta onuradunak indarkeria sexista pairatzen duten emakumeak badira, epea hilabetekoa izanen da. Une honetan ez gara hasiko esaten epe hori betetzen den ala ez, eta ez-betetzea zeren ondorio den: eskaera egiten duen familiari egoztekoak diren izapidetze-kausak, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuari egoztekoa den, ala Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuari. Kontua da ezen, dirudienez, eta eskaturiko betebeharrak betetzen direla egiaztatu ondoren eskubidearen administrazio-onarpena ematean izandako atzerapen justifikatuaz edo justifikatu gabeaz gain, arazo larria egon litekeela laguntza ekonomiko horren sortzapenean edo ordainketan atzerapenak izate-agatik; are gehiago, laguntza horren helburua jendearen biziraupena denean.

Gauza jakina da Elizbarrutiko Cáritas laguntza ekonomiko hori aurreratzen ari zaiela, horretarako akordioak egin ondoren, familia behartsuei; hau da, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren beraren funtzionamendu-akatsak samurtzen ari dela.

Horretaz gain, Nafarroako Parlamentuak behin eta berriro eskatu izan du Eskubide Sozialen Gutun baterako Foru Lege horrek bere arau-garapena izatea; alabaina, orain arte garapen hori ez da egin, nahiz eta egia den oinarrizko dokumentu gisa partaidetza-fasean dagoela une honetan.

Hala ere, sinets dezakegu, huts egiteko arriskuarekin bada ere, mozio honek azaltzen duen egoeraren jatorria ez dela aipaturiko foru lege horren arau-garapena egotea edo ez egotea, baizik eta, betiere, beste kausa batzuk badaudela, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuarekin agian zer ikustekorik ez dutenak; izan ere, nahiz eta prestazioen izapidetzea eta ematea departamentu horrek egiten duen, ez du parte hartzen sortzapen- ordainketa- eta transferentzia-gaietan.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du legeak ezartzen duen epean modu zuzen eta eraginkorrean ordain ditzan “Oinarrizko Errenta” deituriko aldizkako laguntza ekonomikoak.

Iruñean, 2010eko martxoaren 29an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Urrobi industrialdea handitu eta Nasuinsaren bidez kudea dezan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Urrobi industrialdea handitu eta Nasuinsaren bidez kudea dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko apirilaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentariak, talde horren eledun gisa eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Legebiltzarraren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Urrobi industrialdea da Erro, Aezkoa eta Aurizko eskualdeak eskueran duen aukera bakarra,

industria- eta zerbitzu-lurzoruari dagokionez. Urteak dira eskatzen ari direla industrialde hori eskualde-esparrukoa eta Gobernuak Nasuinsaren bitartez kudeatua izatea, beste landa-ingurune batzuetan bezala, eta ez toki-esparrukoa, garapena baldintzatuta daukalako toki-entitateek daukaten baliabide eta kudeaketa-ahalmen eskasengatik.

Erreibindikazio hori guztiz justifikatuta gelditu da gaur egungo egoeran. Industrialdea handitzeko beharrezko badago ere, handitze hori blokeatuta geratzen ari da lursail berriak erosterakoan problemak jartzen ari baita lursail horien jabea, hau da, Aurizberriko Kontzejua.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki-proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du eskualde-mailakotzat jo ditzan Aezkoa-Erro eta Auritz zonako Urrobi deituriko industrialdea eta berorren handitzea, eta Nafarroako Gobernuak Nasuinsaren bitartez sustatua izatera pasa daitezen.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du presaz jardun dezan Urrobiko industrialdearen handitzea eta urbanizazioa gauzatzeko beharrezkoak diren jarduketetan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 7an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernuak premiatzen da Pirinioen 2007-2009 Planean hartutako konpromisoak bete ditzan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernuak premiatzen baita Pirinioen 2007-2009 Planean hartutako konpromisoak bete ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko apirilaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentariak, talde horren eledun gisa eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Pirinioen 2007-2009 Planaren amaiera formalak ez du esan nahi, tamalez, bere indarraldian plan horretan jasotako jarduketak egin direnik.

Aitzitik, ekintza enblematiko dezente, bai eta exekuziorako aintzat harturiko jarduketa ugari ere, batez ere Pirinioetako hiru haranen lurralde-esparruan, hasiera-fasean daude, edo hasi ere ez dira egin.

Oraindik ere ikusteke dagoelarik Nafarroako Gobernuak beteko duen ala ez Parlamentuaren erabakia, Gobernuak plan berri bat aurkeztera premiatzen duena, beharrezkoa da exijitzea aurreko planean hartutakoak eta bete gabekoak diren konpromisoak erabat exekutatuak izan daitezela.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki-proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du proiektu enblematiko gisa jasota dauden edo Pirinioetako haranekiko lotura geografiko zuzenekoak diren jarduketak, plan hura amaitzean gauzatu gabe daudenak, pre-saz has daitezzen edo jarraipena eman dakien 2010ean, eta 2011rako bukatuta egonen direla berma dadin.

Iruñean, 2010eko martxoaren 7an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Lan eta Immigrazio Ministerioa premiatzen da gor-itsuen kopurua ezartzeko azterlan bat egin dezan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Lan eta Immigrazio Ministerioa premiatzen baita gor-itsuen kopurua ezartzeko azterlan bat egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko apirilaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaletak eta Maiorga Ramírezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari ele-dunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Urriaren 23ko 27/2007 Legeak, zeinaren bitartez aitortzen baitira Espainiako zeinu-hizkuntzak

eta arautzen baitira gorren, entzumen-ezgarritasunak dituztenen eta gor-itsuen ahozko komunikazioari laguntzeko bitartekoak, seigarren xedapen gehigarrian ezartzen du ezen Osasun eta Politika Sozialeko Ministerioak azterlan bat eginen duela, zeinean ezarriko baita gor-itsuen kopurua, haien bizi-baldintzak eta kokaleku geografikoa, eratu beharko diren erreferentzia-zentroak zehazte aldera, bai eta kolektibo honen beharrizan bereziei egokituena diren baliabideak ezartze aldera ere.

Orain arte, ministerioak ez du legezko betebeharra bete.

Azaldutako guztia dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Osasun eta Politika Sozialeko Ministerioa premiatzen du azterlan bat egin dezan, zeinean zehaztuko baita gor-itsutasuna duten pertsonen kopurua, bai eta haien bizi-baldintzak eta kokaleku geografikoa ere, eratu beharko diren erreferentzia-zentroak zehazte aldera, bai eta kolektibo horren beharrizan bereziei egokituagoak diren baliabideak ipintze aldera ere.

2. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Ministerioa premiatzen du ofizialki arautu dezan gor-itsuen bitartekarien lanbide-kualifikazioa, Kualifikazioen Institutu Nazionalari eskaturikoaren ildotik.

Iruñean, 2010eko apirilaren 7an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna eta babesa adierazten dio Baltasar Garzón epaileari, frankismoaren krimenak judizialki ikertzeagatik jasaten ari den jazarpen-kanpaina dela eta.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna eta babesa adierazten baitio Baltasar Garzón epaileari, frankismoaren krimenak judizialki ikertzeagatik jasaten ari den jazarpen-kanpaina dela eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko apirilaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Auzitegi Gorenak Baltasar Garzón, Auzitegi Nazionalako epailea, auzipetu du, frankismoaren krimenei buruzko ikerketa judizial bati ekiteagatik. Erabaki hori umiliazio bat da frankismoaren biktimentzat.

Herritar askok biziki kezkatuak dakusagu Auzitegi Gorenaren jarduketa dela-eta gertatzen ari den egoera, Baltasar Garzón epailearen aurka frankismoaren krimenei buruz egin duen ikerketa judizialarengatik egin diren prebarikazio-akusazioen ondoriozkoa.

Baltasar Garzón epailearen lanari buruzko bestelako gogoeta batzuk alde batera utzita, eskandalagarria da frankismoaren krimen preskribaezinak ikertzen saiatzeko abiarazi duen epaile-jarduerarengatik haren kontra aurkezturiko kereila

kriminal bat izapidetzera onartzearen ondorioz epaile horri etete-espeditente bat ireki izana.

Sumina eta lotsa sortzen zaizkigu ikustean nola, frankismo-garaian gure herriko herritar askoren aurka egin ziren delituak zigortzen saiatzeko hatsa eman beharrean, jazarriak diren nor eta justizia egiten ahalegintzen direnak; txundigarria da babesa borraroei ematea, eta berriro ere biktimak beren kasa abandonatzea.

Gure herriko eskuin muturreko inguruneetatik abiarazitako jarduketa judizial hauek (ingurune horietakoak dira izapidetzera onartuak izan diren kereila kriminalen egileak), frankismoaren krimenei buruzko ikerketa geraraztea jomuga dutenak, gure herriko demokraziari eta justiziari egindako desafio onartezina dira, epaileen gobernu-organoen babesik izan behar ez dutenak.

Kasu honetan gertatzen ari dena ez da soilik bere egitekoen esparruan eta esleitu zaizkion ahalen mugapean jardunez urrats judizialak egiten hasten den epaile baten aurkako jarduketa bat; hortik haratago, herritar guztiei adierazten zaiena da herrialde honetan badaudela ukiezinak diren gaiak eta pertsonak, eta haien aurka ekiteak, gaur den egunean ere, ondorio larriak ekartzen dizkiela ekile horiei.

Gure ustez, gure herriko eskuin muturreko zenbait sektoretatik abian jarri den jazarpen-kanpaina zinez onartezina da demokrazia batean, epaileen independentzia pitzatzen saiatzen da, eta herritar guztiei mezu bat helarazi nahi die; hots, justiziaren eta demokraziaren jarduerak badituela muga batzuk, inon idatzita ez daudenak.

Ez da harrizkoa mundu osoko hainbat eta hainbat demokrata eta giza eskubideen alorreko epaile-erakunde nazional eta nazioarteko asaldatura sentitzea kanpaina hau ikusirik, eta haiek Baltasar Garzón epailearekiko elkartasuna erakutsi izana.

Hori guztia dela-eta, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurari honako erabakia hartzea proposatzen zaio:

1. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna eta babesa adierazten dio Baltasar Garzón epaile-

ari, frankismoaren krimenak judizialki ikertzeagatik jasaten ari den jazarpen-kanpaina dela eta.

2. Nafarroako Parlamentuak Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari exijitzen dio erabateko inpartzialtasunez jardun dezala, Baltasar Garzón epailearen jardunean etenik ezarri gabe, harik eta frankismoaren krimenak zigorrik gabe ez uzteagatik ireki zaion prozesuaren inguruan epai judizial irmoak izan arte.

3. Nafarroako Parlamentuak exijitzen du frankismoaren krimenengatik irekitako prozedura judiziala hastea eskatu zuten frankismoaren biktimek

aukera izan dezatela Auzitegi Gorenak Baltasar Garzón epaileari irekitako prozedura judizialean parte izateko.

4. Nafarroako Parlamentuak adierazten du frankismoaren krimenei buruzko ikerketa judizialaren alde dagoela.

5. Erabaki hau Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko buruari helaraztea.

Iruña, 2010eko apirilaren 8a

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aitortzen du Bigarren Errepublika aldarrikatzeak egiazko gizarte demokratiko bat lortzeko itxaropen handia ekarri zuela, balio etiko, politiko eta sozialen berritzea ekarri zuenez.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2010eko apirilaren 12an egindako bilkuran, bestekak beste, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“– Nafarroako Parlamentuak aitortzen du Bigarren Errepublika aldarrikatzeak egiazko gizarte demokratiko bat lortzeko itxaropen handia ekarri zuela, balio etiko, politiko eta sozialen berritzea ekarri zuenez.

– Nafarroako Parlamentuak bere egiten eta aldarrikatzen ditu berdintasun, elkartasun eta askatasunaren ideiak, zeinak proposamen ideologiko errepublikar ezberdinen oinarri baitira, Biga-

rrer Errepublikaren bultzatzaile askok eutsitakoak. Halaber aitortzen du Bigarren Errepublikak kutsu politiko bat utzi zuela, gaur egungoa bezalako estatu demokratiko bat izatea ahalbidetu diguna.

– Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du gorazarre egitea Bigarren Errepublikako erregimen demokratikoa defendatu zuten herritar guztiei, eta bidegabetzat jotzen du erreparazio historikoaren eta egiaren bilaketaren alde dihardutenen edozein pertsekuzio eta arbuio”

Iruñean, 2010eko apirilaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, Lizarrako Karlismoaren Museoan euskara erabili ez izanari buruzkoa.**PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Lizarrako Karlismoaren Museoan euskara erabili ez izanari buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko apirilaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Patxi Telletxea Ezkurra, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko araudi-

an xedatutakoaren arabera, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuko Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariak ahoz erantzun diezaion dagokion batzordean.

– Nafarroako Euskararen Legeari jarraiki, zergatik ez da euskara erabili Karlismoaren Museoan?

– Zergatik ez dira Nafarroako bi hizkuntzak erabili karlismoaren bildumaren adierazpen grafikoan?

– Zergatik ez da euskararen erabilera aintzat hartu?

– Lizarrako eta Nafarroako euskaldunak ez al dute eskubiderik bere hizkuntza ekipamendu publikoetan ikusi eta irakurtzeko?

Iruñean, 2010eko martxoaren 29an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Zortziko izeneko biribilgunearen proiektuari buruzkoa.

TXENTXO JIMÉNEZ HERVAS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervas jaunak aurkeztutako galdera, Zortziko izeneko biribilgunearen proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko apirilaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zein egoeratan dago Berriozar eta Iruñearen arteko muga-aldean dagoen Zortziko izeneko biribilgunerako jarduketa-proiektua?

Iruñean, 2010eko martxoaren 29an

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervas

Galdera, Irurtzungo saihebideari buruzkoa.

TXENTXO JIMÉNEZ HERVAS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervas jaunak aurkeztutako galdera, Irurtzungo saihebideari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko apirilaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zein egoeratan dago Irurtzungo saihebidearen jarduketa? Noizko aurreikusten du Nafarroako Gobernuak obraren hasiera eta obra funtzionamenduan jartzea?

Iruñean, 2010eko martxoaren 29an

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervas

Galdera, Gastu Publikoa Kontrolatzeko Plana inplementatzeak Nafarroako Gobernuko departamentuetan izanen dituen ondorioei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Gastu Publikoa Kontrolatzeko Plana inplementatzeak Nafarroako Gobernuko departamentuetan izanen dituen ondorioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko apirilaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin du:

Nafarroako Gobernuak iragarri du gastu publiko kontrolatzeko plan bat abiaraziko dela 2010ean zehar, departamentu guztietan eragina izanen duena. Horri buruz, parlamentari honek ondokoa jakin nahi du:

Plan hori inplementatzeak zer ondorio zehatz izanen ditu (aipa bitez kasuan kasuko kontusailak) Nafarroako Gobernuko departamentu guztietan?

Iruñean, 2010eko martxoaren 30ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, jakiteko zer kontusail baliatu den ikerketa, garapen eta berrikuntza proiektuetarako dirulaguntzak emateko.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zer kontusail baliatu den ikerketa, garapen eta berrikuntza proiektuetarako dirulaguntzak emateko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko apirilaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak urte anitzeko dirulaguntzak emanen ditu, 778.555 euroko kopurua egiten dutenak, ikerketa, garapen eta berrikuntza proiektuetarako laguntzetarako eskari erantzungabeak izapidetzeko.

Zer kontusail baliatu du Nafarroako Gobernuak, ikerketa, garapen eta berrikuntza proiektuetarako dirulaguntzak emateko?

Iruñean, 2010eko martxoaren 31n

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Hitzarmena Iruñerriko Mankomunitatearekin-Ibai Parkea izeneko kontusaileko diru guztia eman ez izanari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Hitzarmena Iruñerriko Mankomunitatearekin-Ibai Parkea izeneko kontusaileko diru guztia eman ez izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko apirilaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Toki Administrazioiko Departamentuak 400.000 euroko dirulaguntza eman du Iruñerriko ibai-parkeko proiektuak idazteko. 2010eko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorretan 600.000 euroko kontusail bat dago, Hitzarmena Iruñerriko Mankomunitatearekin-Ibai Parkea izenekoa.

Zer arrazoi dela-eta Nafarroako Gobernuak ez du eman Hitzarmena Iruñerriko Mankomunitatearekin-Ibai Parkea izeneko kontusaileko diru guztia?

Iruñean, 2010eko martxoaren 31n

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, jakiteko zer kontusail baliatu den Sarrigurengo ikastetxe publikoan kirol pista bat eraikitzeko.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zer kontusail baliatu den Sarrigurengo ikastetxe publikoan kirol pista bat eraikitzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko apirilaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak 105.600 euro inbertitu behar ditu Sarriguren ikastetxe publikoan kirol anitzeko pista berri bat eraikitzeko.

Zein da Nafarroako Gobernuak erabilitako kontusaila, Sarriguren ikastetxe publikoan kirol anitzetarako pista berri bat eraikitzeko?

Iruñean, 2010eko martxoaren 31n

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, turismoaren garapenerako plan estrategikoei buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, turismoaren garapenerako plan estrategikoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko apirilaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, idatziz erantzuteko:

Zioen azalpena

Kasuko Foru Legeaz eginiko garapeneraren ondorioz, Kultura eta Turismo Departamentuak

zenbait unitateren garapen turistikorako plan estrategikoak egin daitezzen enkargatu izan du. Horrela, martxoaren 31n, hedabideetan hiru lankidetzeta-hitzarmenen berri eman zen, departamentu horrek onetsiak, honako unitate hauetarako garapen turistikorako plan estrategikoak idazteko: Agoitz-Irunberri, Zangozaldeko eskualdea eta Orreagako eskualdea.

Gaur egungo egoera zehatza ezagutzearren, honako hau eskatzen dugu:

1.- Jadanik garatutako plan estrategikoak.

– Horien zerrenda bat

– Enpresa esleipen-hartzaileak eta kostua

– Gaur egungo garapen-balantzea

2.- Abian dauden plan estrategikoak

– Horien zerrenda bat

– Enpresa esleipen-hartzaileak, kostua eta lanak helarazteari buruzko aurreikuspena.

3.- Oraindik ere betetzeko eta garatzeko dauden plan estrategikoak

– Aurreikuspenak eta egutegia

Iruñean, 2010eko apirilaren 8an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, Nafarroako 2009ko Gazteria Sariei buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako 2009ko Gazteria Sariei buruzkoa, erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea.

Galdera hori 2009ko abenduaren 18ko 122. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko apirilaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda
